Gaitasunen ebaluazioa

1.gaia

Irakurri eta erantzun.

Gaur Bakearen Nazioarteko Eguna da. Uste da aurten Europa osoko ikastetxeetako 179.835.000 ikaslek ospatuko dutela.



• Erreparatu Bakearen Eguna ospatzen duten ikasleen kopuruari eta erantzun.

a) Zer zifra da hamar milioikoa?

b) Zer posiziotan dago 1 zifra?

c) Zer zifra da milioikoa?

• Hautatu aukera hauetako bat eta markatu gurutze batez aurten Bakearen Nazioarteko Eguna ospatuko duten ikasleen kopurua.

- ☐ **1 E milioiko + 7 H milioiko + 9 milioiko + 8 EM + 3 HM + 5 M**
- ☐ **Ehun eta hirurogeita hemeretzi milioi eta zortziehun mila.**
- ☐ **100.000.000 + 70.000.000 + 9.000.000 + 80.000 + 3.000 + 500**
- ☐ **Ehun eta hirurogeita hemeretzi milioi zortziehun eta hogeita hamabost mila.**

liveworksheets.com

Pentsatu eta erantzun.

Hauek dira zenbait urtetan Bakearen Eguna ospatu duten ikasleen kopuruak.

170.650.000 171.499.000 172.000.000 171.800.000 170.099.000

• Ordenatu Bakearen Eguna ospatu duten ikasleen kopuruak handienetik txikienera.

• Egin eragiketak eta kalkulatu zenbat ikaslek ospatu zuten iaz Bakearen Nazioarteko Eguna ikasgela bakoitzean.

6.A 3 x (2 + 7) – 2 =

5.A 12 – 8 : 2 + 4 x 4 =

4.A 30 – 2 x 3 – 6 : 3 =

6.B 12 : 4 + 3 x 5 + 3 =

5.B (3 + 6) x 4 – 18 : 3 =

4.B (12 – 2) x (8 - 5)=

• Hiru herritako haurrak elkartu ziren, elkarrekin ospatzeko, eta guztiak 50 eserlekuko autobusetan joan ziren. Lehen herritik, 18 autobus beteta iritsi ziren; bigarrenetik, 16 autobus, bakoitzak 3 eserleku hutsik zituela; eta hirugarrenetik, autobus bat, 5 eserleku hutsik zituela. Guztiak 12 eserlekuko autobus txikitan joan izan balira, zenbat autobus txiki beharko lituzkete?

EMAITZA:

liveworksheets.com